



## ONDARROAKO EMAKUMEEN UDAL BERTINTASUN KONTSEILUA

### BILERA AGIRIA

<b>Eguna</b>	2013ko abenduaren 11n
<b>Ordua</b>	19:00etan
<b>Lekua</b>	Udal batzar gela 1

### BERTARATUAK

Andrabanda Feminista	Amaia Cabero
Boga Boga emakume elkarte	Nekane Iñurrita
	M <sup>a</sup> Jesus Arantzamendi
Uxu Ondarroako emakumeen taldea	Rakel Aspiazu
7 emakume en movimiento	Josune Laka
ONE	Isaura Piñeiro
Independientea	Karmentxu Ibaibarriaga
EAJ	M <sup>a</sup> Dolores Etxano
Kontseiluburu	Rakel Elu
Berdintasun Teknikaria	Rosa Baltar

### GAI ORDENA

1. Aurreko aktaren onarpena.
2. *ETXELILA emakumin topaleku*: Jarduera batzordearen proposameneren azalpena eta adostasuna.
3. Azaroko kanpainaren balorazioa.
4. 2014ko aurrekontuaren proposamena.
5. Eskari-galderak.

Batzarra hasi baino lehen kontseilu-kideek Etxelilan kalefakzioarekin dagoen arazoa azaltzen dute: sistema berria ez da egokia halako gela handientzat ez baitu berotzen; sistema aldatzea eskatzen dute, leihotatik berotasuna joaten da ... Kontseiluburuak dio arazoa helaraziko diola dagokion udal arloari eta aztertuko dela.

#### 1. Aurreko aktaren onarpena.

Karmentxu Ibaibarriagak agiriaren 2. puntuan (Etxelila zabaltzeko esku-orriari dagokiona) hurrengo zuzenketa hau agertzea eskatzen du: "Karmentxu Ibaibarriaga



B) paragrafoan hurrengo aldaketa egitea proposatzen du: Feminismo erabili ordez "giza" agertzea".

Boga-Bogak Uxu taldeari eskatzen dio A25eko kale-ekintzan erabilitako testua, egokia eta interesgarria baita taldearekin konpartitzeko.

## **2. ETXELILA emakumin topaleku: Jarduera batzordearen proposamenen azalpena eta adostasuna.**

Etxelilako jarduera batzordean landutako gaiak azaltzen dira:

- Azken hilabetean egindako jardueren balorazioa egin da. Aipatzekoa da "HIESA genero ikuspegitik" hitzaldia atzeratu behar izan dela.
- Sormenez josteko tailerra. Urtarrileko kontseiluan landuko da, bitartean tailer horretarako partaideek proiektuaren gaineko argibideak emateko idatzia prestatzen ari dira. Proposamen hori helaraziko zaie kontseilu-kideei.
- Denbora bankuaren gaineko egitasmoa lantzen ari da.
- Etxelila eta Gaztelekuaren arteko murala 2014an egingo da. Momentuz pareta zuritzen ari da.
- Urtarriletik martxorako egitarauaren proposamena:
  - o Hurrengo gai hau lantzea: munduko emakumeekin elkartasun sareak.
  - o Proposamenak: Palestinaren gaineko erakusketa (urtarrila), Afrika beltza eta Mendebaldeko Sahara: hitzaldiak eta erakusketak
  - o Kotxe mekanika tailerraren klase praktikoa antolatuko da ebaluazio orriei jaramon eginez: urtarrilaren 18an.
- Aurrera begirako ideiak: Idoia Beratarbide erakusketa, publizitatearen gaineko erakusketa, "Beldurrak gurekin jai" autodefentsa feministaren gaineko liburuxka Emaginekoek argitaratua.
- Ikusirik hainbeste erakusketa aurreikusten direla, Jarduera Batzordeak eskatzen du erakusketak egiteko baldintzak hobetzea eta hartara argitasuna hobetzea, hau da fokuak jartzea.
- Andrabandak proposatzen du kafe tertulia formatuan jarduera gehiago egitea eta espazio mistoak bultzatzea.

Gazteleku eta Etxelilaren arteko koordinazio batzarrak egiteko proposamenaren gainean honako hau da elkarteen iritzia:

- Andrabandak ondo topatzen du eta M<sup>a</sup> Cruz Lekunberri izendatu dute honetarako. Horrez gain, batzar horietan gazte bi egotea proposatzen dute.
- 7 Emakume en movimiento elkarteak ere prest agertzen da batzar horietara joateko.
- Uxuk ez du premiarik ikusten, jarduera batzordean egiten den koordinazioa nahikoa dela pentsatzen dute eta Etxelila eta Gaztelekuaren arteko koordinazioa egiteko dinamizatzailearen figura dugula esaten dute.
- Boga bogak ez du gaia landu. Kontseiluburuak berriro azaltzen du proposamena eta zalantzak argitzen dira. Bide batez, Uxuk komentatzen du Boga boga elkarteko ordezkariak ez dagoela Etxelilako jarduera batzordean



eta garrantzitsua dela bertan parte hartzea. Boga bogako ordezkariak taldean azalduko dutela esaten dute.

Gauzak horrela, gaiaren gaineko eztabaida zabaltzen da:

- M<sup>a</sup> Dolores Etxanok azaltzen du elkarten aldetik adostasuna badago batzorde berri horretan parte hartzeko, ez duela eragozpenik jarriko baina gogorarazten du gatazka dagoela, hau da, etxelilaren kokapena zalantzan jartzen dela edota leku egokian ez dagoelaren aurreiritzia dagoela. Bere ustez, hori ezin da eztabaidatu batzar horietan eta batzar horiek egitekotan koordinazioa izan behar dute helburu. Kontseiluburuak azaltzen du helburua, hain zuzen, koordinazioa dela, hobekuntzak planteatzea eta proiektu berriak egitea.
- 7 Emakume en movimientok pentsatzen du koordinazio horrek tentsioak kentzeko balioko duela.
- Uxuk ordezkariak proportzionalaren gainean arreta deitzen du. Izan ere, Andrabandak planteatzen duen moduan, gazte bik parte hartzen badute, proportzionaltasuna ez da beteko. Kontseiluburuak diño batzar horretan botazioa ez dela egongo. Orokorrean alde horretatik ez dira arazorik aurreikusten.
- Karmentuku Ibaibariak gaineratzen du erabakiak hartzeko lekua kontseilua dela beraz zalantzak hona ekarriko direla, hemen argitu eta erantzunak joango direla ematen dagozkion argudioekin.

### **3. Azaroko kanpainaren balorazioa**

Azaroaren 25eko kontzentrazioaren balorazioa egiten da. Aurtengo formatua oso ondo baloratzen da. Eguraldiak lagundu ez arren, bereziki, Uxuk egindako ekintza aipatzen da. Txo antzerki taldearen kolaborazioa, gizonen presentzia eta Tramana & Brix taldearekin batera egindako lana azpimarratzen dira.

Karmentuku Ibaibariak argitu nahi izan du aktan jasota dagoela kontseiluaren desadostasuna azaroaren 25ean bertan beste kontzentrazio bat aurreikusita zegoelako alde zaharrean, eta bere ustez, lekua zegoen kontzentrazio biak egiteko, ordu berdinean ez zeudelako aurreikusita. Eztabaida sortzen da honen inguruan alde eta kontrako iritziaz agertuz: gauza biak errespetagarriak dira, geuk mugatu genuen kontzentrazioaren iraupena eta abar.

### **4. 2014ko aurrekontuaren proposamena**

Kontseiluburuak azaltzen du 2014ko aurrekontua lantzen ari dela. Laburbilduz asmoa dela, alde batetik, proiektuak mantentzea, esate baterako, jabeakuntza eskola, hezkidetzak egitasmoa, dinamizatzailearen kontratazioa, eta bestetik, berririen bat sartzeko: etxelilako aldizkaria. Halere, udal arlo guztietan murrizketaren bat egin behar da. Gai hori gehiago landu behar du Udalak eta aurrerago beharrezko azalpenak emango dira.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia



ONDARROAKO  
EMAKUMEEN  
UDAL BERDINTASUN  
KONTSEILUA

## 5. Eskari-galderak.

- Uxuk abortatzeko eskubidearen aldeko mozioaren proposamena aurkezten du. Mozio hori kontseiluak onartzea eta Osoko bilkuran aurkeztea eskatzea da. Mozio horren kopiak banatzen dira eta hurrengo kontseiluaren batzarrean landuko da.

Bilera 20:30ean bukatutzat ematen da eta hurrengoaren data zehazten da:  
**urtarrilak 15, 19:00etan.**

Ondarroan, 2014ko urtarrilaren 7an.

Izp.: Rosa Baltar Cabo.  
Berdintasun Teknikaria